# Zientziak eta zinemak bat egiten dute Zinemaldian


ULISES PROUST

NORA ASKARGORTA

Urtero bezain arrakastatsua suertatu zen atzo Belodromoko estreinaldi hirukoitza. Batetik Zinemaldiaren hasiera, bigarrenik ikastetxeen aurtengo lehen bisita eta hirugarrenik kolaborazio berria.

Zinemaldiaren, Donostia International Physics Centerren eta Euskadiko Filmategiaren arteko lankidetzari esker, Zinemaldiko publiko gazteak *Tximinoaren erresuma* filmaz gozatzeko parada izan zuen eta izango du datorren aste guztian zehar Belodromoko proiekzioetan.

Euskarara bikoiztutako gizatiarraren eta animaliaren arteko abentura komiko honek haurrak aho bete hortz utzi zituen atzokoan, eta ikastetxeei eskainiko zaizkien emanaldi horiek gainera DIPCko zientzialariek aurkeztuko dituzte. Horien azalpenei esker, gaztetxoek pelikularen testuingurua hobeto ulertu ahal izango dute hiriaren bereizgarrietako bi lotzeko helburuarekin: zinemarako zaletasuna eta zientzia-espezializazio handia. Ikusle orori zientziaren eta ekarpen zientifikoen aldeko irudia helaraziko die proiektuak.

Izan ere, Donostiari zinemako eta gastronomiako hiria izateak eman dio ospea. Baina, azken hogei urteetan zientzia-hiri ere bihurtu da. Gaur egun, nazioarteko 4.000 zientzialari baino gehiago daude Donostian lanean; hau da, biztanle bakoitzeko zientzialari gehien dituen hirietako bat da Europan.

Ekimen hori atzokoan, besteak beste, Pedro Miguel Etxenikek, Donostia Physics Centerreko presidenteak aurkeztu zuen, zeinak proiektuaren aurkezpenean "belaunaldi berriak hein handi batean zientifikoa eta teknologikoa den kultura batean jaio dira. Aplikazio eta modetatik harago, gure ustez garrantzitsua da zientziaren ekarpenak ezagut ditzatela –nola aldatu duen unibertsoari eta geure buruari buruz dugun ikuspegia eta nola hobetu dituen gure bizi-baldintzak– eta horien inguruan hausnartzeko" adierazi zuen.


Adolfo Morais, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea; Pedro Miguel Etxenike, DIPCko presidentea; Joxean Fernández, Euskadiko Filmategiko zuzendaria; eta Aitzol García-Etxarri, DIPCko Ikerbasque ikerlaria.
ULISES PROUST

Euskadiko Filmategiak eta DIPCek 2018an antolatu zuten lehen aldiz zinemari eta zientziari buruzko ziklo bat elkarrekin. Ikusleek oso ongi hartu zuten "Hor kanpoan: zinema eta zientzia" zikloa, eta horregatik beste bat antolatu dute aurtengo lehen hiruhilekoan: "Ezezaguna: zinema eta zientzia". Ziklo horiek helduentzat antolatu dituzte nagusiki, baina oraingo ekimenak haurrez osatutako audientzia baten aurrean bateratu nahi ditu zinema eta zientzia.

Hala, ikastetxeekin hitzartutako programa berri horrek Zinemaldiko hurrengo edizioetan ibilbide luzeagoa izan dezan lanean ari dira jada hiru elkarteak. Iaz, 79 ikastetxetako 13.300 ikasle inguru etorri ziren Belodromoko sei saioetara. Aurten, 2019an, goizez egingo dira emanaldiak, atzokoaren ondoren, datorren asteko astelehenetik ostiralera, biak barne.

***Tximinoen erresuma***

Jamel Debbouzek zuzendutako eta *motion capture* teknika modu txundigarrian erabiliz egindako *Tximinoen erresuma* film frantsesa da. Edouard protagonista, besteak baino askoz ere tximino txikiagoa eta ile gutxiago duena da eta bere gorputz-adarretako bat ezin du erabili; bitxikeria horiek, bere buru-argitasunarekin bat eginda, espeziearen eboluzioko lehen kate-maila izan daitekeela adieraz dezakete.

# Fernando Savater recuerda en un libro a su amor, "Pelo Cohete"

QUIM CASAS


Los participantes en la presentación del libro.
ULISES PROUST

"Este libro no tiene otro objetivo que recordar a Sara y dar ganas de conocerla a los que no llegaron a hacerlo". De este modo explicó Fernando Savater la esencia del libro "La peor parte. Memorias de amor", en el que revive, repasa y nos cuenta de forma emotiva su relación con Sara Torres, llamada cariñosamente "Pelo Cohete", su amor durante más de tres décadas.

Torres, vinculada durante años al Patronato de Cultura de San Sebastián, al Festival de Cine y, sobre todo, a la Semana de Cine de Terror, además de profesora universitaria y colaboradora de "Fotogramas", falleció en 2015. Este libro es un homenaje, pero también el recuerdo de los meses de enfermedad y la desolación posterior a su muerte.

Entre los participantes en la presentación, Ricardo Aldarondo, compañero de Torres y José Luis Rebordinos en la aventura de la revista "Nosferatu", recordó que fue "un elemento dinamizador con su carácter de torbellino en el Patronato de Cultura. Lo que más destacaría de ella sería su generosidad. Estaba atenta a todo, de Shakespeare al gore". Ana Ímaz, amiga personal, recordó las inolvidables sesiones de cine caseras, interminables y dichosas, y que con ella aprendió a querer los monstruos del cine y la literatura fantástica. "Fernando escribe que tenía cualidades solares. Estoy de acuerdo: era luminosa", aseguró. Maite Pagaza añadió que la siente flotando como la sonrisa del gato Cheshire en "Alicia en el país de las maravillas".

Según Savater, el libro no es una mezcla de realidad y ficción. "Aunque puedo haberme equivocado en algo, todo lo he contado como pasó". El autor recordó el día en que se conocieron. Había dado una clase y Sara se puso a hablar con él: "No me ha gustado nada tu clase, me dijo, ¡y así treinta y cinco años!". El libro se abre con el fragmento de una canción ranchera de Antonio Aguilar, protagonista de uno de los filmes de Roberto Gavaldón, a quien Zinemaldia dedica este año su retrospectiva clásica


El embajador de Canadá, Matthew Levin, asistió a la inauguración del Festival.
MIKEL BLASCO

# "Un espíritu de aventura que continúa"

ANTONIO MIGUEL ARENAS

En el marco de un encuentro informal organizado para poner en común a empresas locales presentes en mercados fuera de España, el embajador de Canadá, Matthew Levin, se dirigió a una representación de las mismas para recordar "la relación tan especial de Canadá con la ciudad de San Sebastián, que comenzó con los balleneros vascos que en el S.XVI llegaron a las costas de lo que actualmente es Canadá. Un espíritu de aventura y emprendimiento que continúa gracias a la cooperación internacional, fundamental para la innovación y la captación de talento".

Por último, el embajador de Canadá se mostró "feliz porque por primera vez un actor canadiense gana el Premio Donostia, otro ejemplo de la buena relación entre ambos países", en referencia al galardón a Donald Sutherland, que será homenajeado el próximo jueves 26 de septiembre en el Kursaal.